



Oroitzapenen Baobab ezkutua

Elkarrizketak Senegaleko emakumeekin





AOBAB ZUHAITZAREN ITZALEAN aurkitzen dute afrikar emakume askok elkartzeko toki egokia, dena leuntzen duena, eta hitz garrantzitsu eta sakonean sartzera, emozioak eta bizipenak trukatzera bultzatzen duena. Erabateko askatasunez mintzo dira, akordioetara iristen dira, eta epe luzeko harremanak sorten dira elkarrizketaren bidez. Manuel Iradier Elkarte Afrikanistatik (AAMI), Vitoria-Gasteizko Udalaren III Berdintasun Planarekin bat eginez planteatu dugu gure proiektua, ***Oroitzapenen Baobab Ezkutua / El Baobab Recóndito De Los Recuerdos*** izenburupean. Ekimen honen xedea gure auzoko emakumeen kontakizunak, benetako historiak eta, nahiak ezagutzea da, Afrikatik etorritako emakumeenak. Migrazio-istorioen bilduma bat, beraz, loturak sortzeko eta emakumeen banakako eta taldeko ahalmenaz jabetzen lagunduko duten puntu komunak bilatzeko.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Berdintasunerako Zerbitzuaren diru-laguntzaren bitartez Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak egindako eta argitaratutako proiektua, Mboolo Elkar elkarteko emakume senegaldarren parte-hartzearekin.

2018. urtea.

Diseinua eta ilustrazioak: Josean Morlesín Mellado.

Argitalpen hau eta bere edukiak Creative Commons Aitortu-Ez Komertziala-Lan Eratorririk Gabe 4.0 Nazioarteko lizentzia baten babespean banatzen dira:

CC BY-NC-ND 4.0

**«Senar on bat lortzea
da nire ametsa»**

Zergatik da ametsa emakume senegaldar batentzat senarra aurkitzea? Afrikako alde askotan gizonaren jabetzakoa jotzen da oraindik ere emakumea. Hark hartzen du emakumearen ardura, hark zaintzen du. Beraz, «senar on bat errespetatzen, balioesten eta etxeko lanetan laguntzen dizuna da, haurrak zaintzen laguntzen dizuna, zu zaintzen eta ulertzen zaituena. Bakean bizitzen uzten dizuna, zuk hala nahi baduzu bileretara joatea eragozten ez dizuna. Eskatzen diozunean dirua ematen dizuna eta, gainera, maitasuna ematen diona. Gizon langile bat, familiaz arduratzen dena, behar duzunean hor dagoena, mimatzen zaituena».

**Zer da emakume
senegaldar batentzat
ezkontzea?**

Emakume senegaldarrentzat ezkontzea bizitzaren parte da. Emakume senegaldar batentzat senarrak ez izatea osorik ez egotea da. Funtsezko zerbait faltako balitzaio bezala. Senegaldar kulturaren adin jakin batera iritsi eta ezkongabe jarraitzen baduzu, jendeak ez zaitu errespetatzen eta gaizki esaka aritzen dira zuri buruz. Batzuek pentsatuko dute ez duzula ezkondu nahi, jolasean jarraitu nahi duzula.

Horregatik, ezkongabetasunaren estigma eta esamesen sufrimendua ekiditeko, senegaldar emakume bat adin jakin batera iristen denean ezkontzea du amets. Adin hori 20-25 urte inguru izaten da, lanean zein ikasten egon, aberatsa zein pobrea izan... Ezkontzaren lasaitasuna balio erantsi bat da.

**Zer deritzozue
famiariaren euskarri
izateko adingabeak
ezkontzeari buruz?
Nola ekidin
daiteke hori?**

Gaur egun hori ez da hiri handietan ia gertatzen. Hala ere, urrutiko herrietara bazoaz horrelako egoerak aurkituko dituzu oraindik ere. Hori saihesteko heziketa eman behar da, eta pertsoneri beste aukera batzuk eta beste bide batzuk eskaini behar zaizkie. Edozein egoeratan garrantzitsuena heziketa dela erakutsi.

Nola ikusten da poligamia Senegalen?

Nola onar dezake emakume batek senarrak beste emakume bat hartzea bigarren emazte izateko?

Erlijioarekin lotutako kontu bat da. Gure erlijioak dio gizon bat lau emakumerekin ezkon daitekeela, eta hango gizonak oso barneratua dute eskubide hori.

Hala ere gatazka asko eragiten ditu familietan; izan ere, emakume batzuek onartzen dute, baina beste batzuek ez. Horrelakoetan, emakume batek nahi ez badu bere senarrak beste emazte bat izatea, harekin hitz egin dezake, eta ez egiteko eskatu. Baina gizonak erabakia hartua badu, bi aukera ditu: onartu ala ezkontza hautsi.

Ezkondu aurretik, emakumeak senarra izango denari eska diezaioke kontratu bat izenpetzea esanez ezkontza monogamoa izango dela. Senarrak, jakina, onartzeko edo ez onartzeko aukera du.

«Nire senarra 10 emakumerekin ezkonduko balitz ere ez litzaidake axolako. Batzuetan ni nekatuta nago eta senarrak nire beharra baldin badu nik ezin dut ezer egin. Baina bi emazte baldin baditu bestearekin joan daiteke, eta nik atsedean har dezaket besteak laguntzen dion bitartean».

«Nire ama aitaren hirugarren emaztea da. Nire amak beste etxe bat erosi zuen, beste biek ondo konpontzen ez zelako. Kalte egiten zioten dirua zeukalako. Horregatik, nik ez dut nahi nire senarrak beste emazterik izatea».

¿Nola azal diezaiokegu hemengo bati senegaldar emakumea berez ez dela esanekoa?

Zail samarra da, zeren eta, berez, partez, partez bakarrik, esanekoak gara, gure kulturak eta gure erlijioak horretara bultzatzen gaituelako. Baina beste alde batetik, erabakiren bat hartu behar denean hartu egiten dugu, eta askotan gure senarrek guk erabakitakoa egi-

ten dute. Erabat esanekoak bagina esaten diguten guztia onartu behar-ko genuke, baina badira 30 urte Senegal herri demokratiko bat dela. Emakume musulmanak gara, baina ez gaituzte ezertara behartzen, ez gaituzte beloa eramatera behartzen, eta ezta etxean geratzera ere, batzuek dioten bezala.

Ez dugu uste Senegalen emakumeak esanekoak direnik. Guk erabakitzen badugu lanera ez joatea eta etxean geratzea etxeko lanak egiten, eta orduan gizonak joan behar baldin badu kanpora etxera zer jana ekartzeko, horrek ez du esan nahi esanekoak garenik. Berez, elkarren beharra dugu.

«Kalean geldiarazi naute esateko “barkatu, baina diote-nez emakume musulman batek ez du beloa etxean ere kentzen”. Hori ez da horrela, nik kalean besterik ez dut eramaten. Nire etxeko atetik sartu bezain laster kendu egiten dut. Nire askatasuna dut, baina nire sinesmenagatik kalean jantzi egiten dut, hori sinesmena da. Ez da esanekotasuna, ez gaituzte behartzen. Agian beste herrialde batzuetan egingo dute, baina gurean ez».



Zer eskatzen dugu berdintasunerako?

Berdintasuna bilatzen dugun emakume gisa, eskatzen dugu gauzak alda daitezela han haurrei jaiotzean esleitzen zaizkien eginkizunei dagokienez. Emakumeengan jarri behar dugu arreta. Geure burua balioetsi, eta sinetsi erakutsi zaiguna baino askoz gauza gehiago egiteko gai garela; ahaztu gabe gizonek ere ahalegin bat egin behar dutela mentalitatez aldatzen hasteko eta emakumeei beren ametsengatik eta errealizaturik sentitzeko egiten duten borrokan babesa emateko.

Ados al zaudete «gizona etxera iristean janaria prest izan behar da, eta apaindurik egon behar da senarra kitzikatu eta harekin jolasteko» ideiarekin?

Baietz erantzungo dizugu senegaldar emakume gisa. Emakume bat etxean baldin badago, lanik egin gabe, bere ardura da senarra zaintzea eta etxekoandre gisa etxean lan egitea. Horrek barne hartzen du ondo jantzita egotea, usain ona izatea eta senarrari ongi sentiaraztea. Hori ikasi dugu txikitatik, eta horrela ikusi dugu gure gurasoen arteko harremanean. Guk *diongué* [joné] esaten diogu horri. Baina hemengo emakumeek uste dute hori egitea esaneko izatea dela. Guretzat, hori egitea gure kulturarekin eta erlijioarekin lotuta dago. Guk geuk erabaki dugu eginkizun hori geure gain hartzea. Gure betebeharrak dira. Gure senarrek ere badakite noiz lagundu behar duten etxeko lanetan. Ez dugu zertan laguntza eskaturik. Zera gertatzen da ordea, hemengo jendeak uste du gizonak emakumea Espainiara ekarri eta mendean hartu eta etxean geratzera behartzen duela, haurrak zaintzeko, janaria prestatzeko... Baina gure iritziz uste hori okerra da.

«Egoera hori asko bizi ohi da Senegalen. Ezkontzen zarenean ereduako emakume bat izan nahi duzu, emakume on bat. Senarra zaintzen dakiena, erlaxatzen duena, janaria prestatzen diona, kalera ondo jantzita eta itxura onez atera dadin arduratzen dena... Hori haren betebeharra da. Orain urte batzuk hemen, Espainian, eskuliburu bat

zegoen zioena nolakoa izan behar zen emakume ideala, nola zaindu behar zen senarra. Gauza bera da.»

«Emakume asko etorri dira ez senarra “zerbitzatzeko”, baizik eta bikotea salbatzeko eta familia osoa elkarrekin egoteko eta gauzak partekatzeko.»

***Eta emakumeak
etxetik kanpo lan
egiten badu?***

Senegalen, gehienetan, emakumeok ez dugu lan egiten, etxean geratzen gara, etxeko lanak egiteko. Gizona ateratzen da kanpora. Biek lan egiten badute, norbait bilatzen da etxeko lanak egiteko. Ahizpa bat, lehengusu, bat, iloba bat edota eginkizun horiek betetzeko beste norbait. Hemen ez daukagu familiaren babes hori, eta ez daukagu beste pertsona bat kontratatzeko modurik. Gizon batzuk jabetzen dira biek dutela, bai gizonak eta bai emakumeak, etxeko lanen ardura, baina hori gizon bakoitzaren, senar bakoitzaren mentalitatearen baitan dago.

«Oroitzen naiz txikia nintzenean, eskolara joaten nintzenean, ama eta izeba lanera joaten zirela, eta etxetik atera aurretik janaria prestatu behar zutela dena egina uzteko. Pena handia ematen zidan, eta esaten nuen: “Jo! Ze zaila den European emakume afrikarra izatea”, zeren eta lanera joan behar baituzu, baina joan aurretik janaria prestatuta. Orain nik neuk bizi dut horixe bera.»



Nola azal dakioke emakume arabar bati emakume senegaldar batek ahotsa duela etxean, bikotean, familian eta lagunartean?

Senarrak etxean esaten badizu zerbait egiteko eta ados ez bazaude esateko eskubidea duzu. Esate baterako, senarrak esaten badu alabak ezkondu egin behar duela eta ados ez bazaude, esan dezakezu eta ezkontza onartzeari uko egin. Emakume askok eragozten dituzte ezkontza horiek. Baina emakume afrikar gisa, gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzeari dago-kionez uste dugu gizona eta emakumea inoiz ez direla berdinak izango, erlijioak bakoitzaren erantzukizunak finkatzen baititu. Senarrak bere betebeharrak ezagutzen ditu, eta badaki familia mantendu behar duela, eta emakumeak, berriz, gizonari errespetua zor diola.

«Erljioa da, Koranean idatzita dagoena. Gizon musulman guztiek dakite hori, eta baita emakumea ezin dutela gaizki tratatu ere. Gure profetak idatzi zuen Koranean emakumea mimatu egin behar dela, emakumea dena dela, gure ama, gure arreba.»

«Garai batean, emakume bat zerbaitekin ados ez baldin bazegoen, ez zuen esaten, kulturagatik; orain bere iritzia eman dezake.»

Emakume senegaldar batentzat zer da garrantzitsuagoa, ohitura eta tradizioa ala bere eskubideak eta iritziak?

Ez dago aho bateko iritzirik. Batzuentzat kultura ez da garrantzitsu, baina beste batzuentzat kultura dena da, gertatzen ari diren aldaketak balioesten eta esker-tzen badituzte ere.

«Gu afrikarrak gara. Bizimodua ateratzera etorri gara hona. Ez dago gurea baino herri hoberik, kontua da nola ateratzen dugun bizimodua han edo hemen. Ni senegaldar izateaz harro nago eta inoiz ez ditut nire ohiturak utziko.»

«Tradizioak eta kulturak norbere iritziak baino eragin handiagoa dute erabakietan. Askotan senarra etxean dago, baina zuk altxatu behar duzu afaria egitera, zure kultura delako: senarra zaindu behar duzu. Lanetik etorri zara, oinetako mina duzu eta sukaldean egin behar duzu. Neska zuri batek berriz esango lioke senarrari: “presta ezazu afaria”, edota “lehendabizi hel-tzen denak egin dezala afaria”. Baina guk, gure kultura dela-eta, ezin dugu hori egin.»

Zer pentsatzen duzue txikitatik gizonei edo emakumeei irakasten zaizkien edota haiei zuzentzen zaizkien lanbideez?

Gauzak asko ari dira aldatzen XXI. mende honetan. Lehen ez zen pentsatu ere egiten neska batek bidaiatu zezakeenik, baina orain berriz, bai. Senarrrik gabe ere, ezer gabe ere, mugitu daiteke bizimodua ateratzeko. Oraintxe bertan, Senegalgo unibertsitatean ikasleen % 80 emakumeak dira, eta askok eta askok etxetik kanpora lan egiten dute. Gaur egun Senegalen emakume asko jaikitzen da goizeko 6etan lanera joateko, arraina saltzeko..., mekanikoak dira, taxi-gidariak, bulegoetan lan egiten dute, eta abar.

«Amonak eskolara joaten uzten zion amari, ezkutuka. Beste alabetatik bakar batek ere ez zuen ikasi, eta horrek etorkizunean aukerak emango zizkiola jakinda, ama ikasten hasi zen. Nik ikasi dut eta nire alabek nik baino gehiago ikasi dute. Ni ez naiz unibertsitatera joan eta nire alabak, berriz, masterak egiten ari dira.»



***Zer egiten ari
gara hau guztia
—emakumeek
ikasi ahal izatea,
ahotsa izatea eta
erabakitzea—
mantendu eta
haz dadin?***

Denak funtzionatzeko oinarria da ezkontzarekiko errespetuari eustea eta hala bikotekideen arteko gatazka saihestea. Komunikazioa izatea eta dena partekatzea. Gero, gure lanak gizonekin partekatu behar ditugu, zeren askotan ez baitugu nahi gizonek parte hartzerik. Ez dugu pentsatu behar hori egiteagatik emakumetasuna galtzen dugunik. Ulertu behar dugu lanak bionak direla. Emakume senegaldarrok erantzukizun handia hartzen dugu geure gain, eta zama hori arintzen eta partekatzen ikasi behar dugu. Parte hori emakumeei dagokie.

Gizonei dagokienez, komeniko litzateke mentalitate-aldaketa lantzea. Jakin behar dute gehiago babestu behar dituztela emakumeak, eta kontuan izan etxeko lanak ez direla emakumeen kontua bakarrik.

***Jaioterrira
itzultzea?***

Zailtasun asko jartzen zaizkio aurrean senegaldar familia bati baliabiderik ezak eta epe luzeko langabeziak jaioterrira itzultzea planteazten dionean. Zailtasunak familia horren kide guztientzat dira. Senar-emazteek elkarrekin ez egoiteagatik sufritzen dute. Emakumeak, itzultzean aurkituko dituen gizar-te-aurreiritzietarako mentalizatu behar izatearen zailtasunari aurre egin behar dio, eta gainera jaioterrian dauden familiartekoeekin topo egitearen zailtasuna. Horri gehitu behar zaio norbere egoerari buruzko azalpenak emateko edo ez emateko behar den indarra, horrek eragin txarra baitu familiarengan, bai hangoengan eta bai hemengoengan. Bigarren kasuan, geratzen direnak emakumearen faltagatik sufritzen dute. Haurrek ere, gurasoetako batekin itzultzen badira, ikasketa-plana alde bat utzi eta ordura arte egindako lan guztia pikutara bidali beharko dute.

«Hain gaizki baldin bagaude, zergatik ez gara gure herrira itzultzen?», galdera hori etengabe entzuten dugu emakume senegaldarrok Araban, eta izugarri gogait eragiten digu. Pertsona askok ez dakite oso

gaizki egon arren hemen bizitzea hobea dela. Han berriz ere hutsetik hastea, diru asko ez baldin baduzu... Hemen, gutxienez, jateko eta egunean bizitzeko iristen zaizu. Baina itzuliz gero ez daukazu lana aurkitzeko inolako segurtasunik.

«Bizitza errealean, egoera hori iritsi zaigunean, nik esan dut bi haur txikiekin itzuliko nintzela. Baina zaharrena, batxilergoa egiten ari dena, hemen geratuko zela aitarekin, ikasketetan aurrera doalako.»

«Bizitza errealean gauza bera gertatzen da. Hemen seni-deak badituzu, baina haiek ere beren gastuak dituzte.»

«Zure lurrera itzultzen zara, baina haiek, normaltzat jo beharrean, lotsagarritzat hartzen dute.»

***Ikasketak amaitu
dituen neska gazte
baten AEBetara
emigratzearekin
amets egiten du***

Garai batean esan zitekeen senegaldar gehienek ez zutela Europako egoera ezagutzen, baina gaur egun ez da hori gertatzen, immigrazio handia baitago. Migratzaileek gogor lan egiten dute, baina familia ikustera joateko adina irabazten dute doi-doi. Itzultzen direnean, bisitaren ondoren, berriz familia ikustera joateko dirua aurreztu behar izateko prozesu berberean aurkitzen dira.

Senegaldar gizartea ez dago prestatuta emakumeak «gizonezkoarena» egiteko. Han dagoen emakumeak sufritu egiten du bakarrik geratu delako, babes emozionalik gabe, eta haurrekin egotearen zama osoa jasan behar du bere gain. Senarrak dirua bidaltzen badizu ere, horrek ez du dena konpontzen, Gizonak ere sufritu egiten du. Han jendeak uste du zure senarra European baldin badago diru asko irabazten duela. Baina zuk, emazteak, badakizu zein den senarraren errealitatea.

Zaila da familia batentzat alabari atzerrira alde egiten uztea, eta ez da horrelakorik onartzen. Pentsatu ohi da neska batek ikasketak baldin baditu, lan-aukerak badituela Senegalen. Emigratzeak arriskuan jarriko luke, batez ere doan lekuan inor ezagutzen ez baldin badu. Baina gizona baldin bazara ez dago arazo handirik, gizonaren egoera desberdina baita. Gizartea ohituta dago gizona izan dadin bizimodua ateratzeko alde egiten duena. Mutilak izan dira betidanik gehien emigratu dutenak. Lagundu egiten diote, animatu egiten dute, baina neska bati senar on bat bilatzeko aholkatuko diote, eta asmo hori burutik kentzen ahaleginduko dira, bidaiaren irudi ezkor bat emanez.

Familiaren aldetiko babes falta horren eta entzun ohi diren komentarioen eraginez erdira murrizten dira gaitasunak. Azkenean, neskek, gauza handiak egiteko gai izan arren, hutsean geratzen dira. Hor norbere nortasunaren baitan daude bakarrik.

«Nire ahizpak Europara etorri nahi izan du batxilergo-ikasketak amaitu ondoren. Frantziara joan nahi zuen ikasten jarraitzeko, baina hurbileko seniderik ez daukanez ezin izan du. Haren senargaia, ordea, batxilergoa amaitu eta Frantzian dago, Unibertsitatean ikasten, han batere seniderik izan ez arren.»

Afrikar neska batek harremanak ditu europar batekin:

Senegalen normaltzat jotzen da hori, pertsonak ikuspegi irekia dute zentzu horretan, baina batzuetan familien baitan egoten da hori, batzuk oso erlijioitsuak baitira. Baina gogoko ez izan arren, onartu egiten dute.

Senarraz dibortziateko neska bat:

Senegalen dibortzioa ez dago ondo ikusia gizartean, baina mentalitatea aldatzen ari da. Nolanahi dela ere, dibortzioa gertatzen denean, badago jendea arrazoiak

jakin nahi dituen. Ugariak dira esamesak eta espekulazioak. Senarra ondo zaindu ez izanaren errua botatzen zaio emazteari edota, bestela, pentsatzen da gizonak beste batekin ezkontzea erabaki duela, lehendabizikoak ohartu gabe. Pentsatzen da ezkontzan sufritu arren jasan egin behar dela, bestela porrota baita emakumearentzat. Egoera onartu egin behar duzu, seme-alaben onerako.

Hala eta guztiz ere, gaur egun dibortziaztea nahiko normala da eta seme-alabadun emakume dibortziatuak lehen baino gehiago baloratzen dira. Koranak uzten du dibortziaztea. Ez dago inongo arazorik.

***Neskek eta mutilek
ikuspegi bera dute
emigratzeko?***

Pobrezia hainbestekoa da, naiz batzuek nahiz besteek zera pentsatzen baitute, lagundu egin behar dutela. Batzuek ala besteek bizimodu hobe bat eta aukera gehiago lortzea espero dute emigratuta.



***Zein aholku
emango zenioke
emigratzea amets
egiten duen senide
edo adiskide bati?***

«Ausartu zaitez, bizimodua atera nahi baldin baduzu, baina lan bat baldin badaukazu, gutxi baldin bada ere, saiatu zaitez dirua aurreratzen gero negozioren bat baterako erabiltzeko.»

«Erabil ezazu denbora eta daukazu diru apurra negozioak egin eta zure herrian inbertitzeko. Ez ezazu erabili Europara etortzeko. Bizitza gogorra da; ez du merezi; han hobeto bizitzen da.»

«Ez dezatela emigratzea pentsatu beren egoera hobetzeko han bertan ikasi baldin badezakete; izan ere, hona etortzen badira, dena zaila da. Bidaiatzeko mentalitate hori burutik kentzeko aholkatuko nieke.»

«Ni ez noa inori aholkurik ematera. Etorri nahi baldin badute, etor daitezela hemen zer dagoen ikustera. Zeren eta, esate baterako nire ahizpari esaten badiot ez etortzeko eta ni beti luxuzko gauzekin joaten banaiz hara, pentsatuko du ez dudala maite, eta asko maite dut.»

«Ez ezazu inora emigratu denboraldi batez bere etxean har zaitzakeen eta gauzak nola funtzionatzen duten edota bakarrik moldatzeko bidea erakusten dizun norbait ez baldin baduzu. Izan ere, inor ezagutzen ez duzun leku batean oso zaila da. Zure burua putzu batera botatzea bezala da.»



Nork eragin dezake pertsona batengan emigratzea ala etxean geratzea erabakitzeke orduan? Presiorik egon al daiteke (gizartea, familia...) norbaitek emigratzea erabakitzeke? Desberdina al da neskontzat eta mutilentzat? Nork eragiten die? Zerk animatzen edo bultzatzen ditu?

Inguru hurbilenak eragiten du: familiak eta adiskideek. Haien aholkuekin geratzen zara, eta horrek bultzatzen zaitu gehien emigratzeko erabakia hartzera. Batez ere ikusten duzunean Europara joan diren zure adiskideek edo auzokoaren semeak familiari laguntzen diotela. Horrek bultzatzen zaitu zuk ere ahalegina egitera, zure hurbilekoei laguntzeko.

Gaur egun presio bera egiten zaio neska bati edo mutil bati. Berdin dio nork alde egiten duen. Beharrak eta familiak berak animatzen eta bultzatzen ditu emigratzera.



***Zer ekarri
digu emigratu
izanak? Aldeko
eta aurkako
adibide bana***

Aldekoa:

«Niri dagokidanez, migrazioa, oro har, onerako izan da.»

«Migratu izanak tolerantzia handiagoa izaten lagundu dit, gizarte-errealitateaz jabetzen, asko lagundu dit sozializatzen eta, beraz, integratzen.»

«Nire familiari lagundu ahal izan diot, eta haien bizi-egoera pixka bat hobetzen.»

«Adorea eta ausardia eman dizkit. Egunero ikasten dut zerbait, eta nire seme-alabak hazteko aukera eman dit, ausartak izan daitezen, eta, gainera, pertsonetikiko errespetua izaten.»

«Nire senarrarekin eta seme-alabekin elkartzeko aukera eman dit. Orain guztiok elkarrekin bizi gara.»



Aurkakoa:

«Zure Unibertsitate-diplomekin hona etorri eta esaten dizute ezin dizkizutela homologatu eta berriz ikasaz-ten dizute.»

«Familia urrun izatearen tristura.»

«Ikastaro batzuetan emakumea izateagatik egiten duten diskriminazioa; horrela ikasten jarraitzeko gogoak kentzen zaizkit.»

«Egiten ditugun kontraturik gabeko lan ezegonkorrak, gure ahaleginak islatzen ez dituztenak.»

«Denbora honetan guztian jasan dudana sufrimendua, bakardadea eta nire familiarengandik urruti egotea.»

«Gizartearen jarrera arrazistak jasatea. Pertsona batekin lan egiten duzu eta gaizki hitz egiten dizu, edota ez zaitu agurtu ere egiten, zure jatorriagatik eta koloreagatik bakarrik.»



***Elkarrizketetan
agertutako
beste gai
interesgarriak***

Mugen murrizketa eta lege-dokumentazioa

Espainiarren eta afrikarren egoera desberdina da. Espainiar herritar batek gaur bertan Senegalera joan nahi badu familia ikustera, ez dauka inolako arazorik. Afrikan nahi denean sar daiteke, eta handik atera ere bai, eta gu hemen, lanean, kotizatzen eta paperekin legearen arabera lanean egon arren ezin ditugu gure senideak ekarri.

Prestazioen mugaketa eta kudeaketa

Hemengo legeak kikildu egiten gaitu. Hemen lanean urteak daramatzan pertsona bat lanik gabe geratzen denean langabezia-dirua jasotzen du, baina jasotzen duen prestazio horrek mugatu egiten du; izan ere, bere herrira familia ikustera joaten bada langabezia-diru hori eten egiten da. Gure herrira dirua bidaltzeko eskubidea dugu, baina egiten dugu bakoitzean dokumentuak eta justifikazioak eskatzen dizkigute zernahitarako.

Hezkuntza eta tituluen baliozkotzea

Nire alabak titulu bat dauka, hemen ikasi du eta hemen ari da lanean. Txagorritxu erietxean lan egiteko aukera emango zion lehiaketa bat aipatu zidan. Aurkeztera joan zen eta esan zioten herritartasuna izan gabe ezin zuela. Badauka titulua, baina herritartasunik gabe ezin du ezer egin.

Familia berriz elkartzea

Lanbidek ukatu egin dit gizarte-prestazioa nire familia hona ekarri ez dudalako. Baina, nola ekarriko dut familia gizarte segurantza ordainduko didan lanik ere ez baldin badut? Nola lortuko dut etxe bat? Fami-

lia ekartzeko etxebizitza izan behar duzu lehendabizi, eta gero izapideak egin. Paper pila bat, eta etxebizitza-txostenak gainera. Adibidez, nik senarra eta bi seme ekarri behar ditut, orduan 1200/1300 euro inguruko soldata izan behar dut hilean haiek hona ekarri ahal izateko, bestela ezin dira etorri.

Ordaindu gabeko praktikak

Ikastaroena ulertzen dut, titulua lortzea nahi izan dezakezulako. Ulertzen ez dudana da hiru hilabeteko ikastaro bat egin eta gero beste hiru hilabeteko praktikak egin behar izatea ezer kobratu gabe. Erabili egiten gaituzte eta gero enpresak ez zaitu hartzen. Immigranteok nahi dugu ikastaro bat egiteko deitzen baldin badizute gero jarraitzen uztea, gutxienez lan bat aurkitzeko. Ezer egin gabe ematen dituzu 3, 4 edo 5 hilabete. Batzuetan ikastaro bat egiteko deitzen didate eta ezetz esaten diet, ez dudala astirik. Badut denbora, jakina, baina ez dut gogorik.

Lan-prekaritatea

Langabezia-prestazioa kobratzeko eskubiderik izan gabe aritu naiz lanean, eta hori ezinezkoa da; izan ere oso gaizki ordaintzen dute, ez dituzte kontratuak behar bezala egiten. Badira espainiar enpresak jendea ordu eta erdirako hartzen dutenak. Urtebetez sei ordu lan egiten duzu eta ez daukazu langabezia-prestazioa jasotzeko eskubiderik.

Hemen, zer gertatzen zaie espainiarrei? Frantzian ez da gauza bera gertatzen. Aireportuan, autobusetan eta beste esparru batzuetan immigranteak ikusten dira lanean, baina hemen, oso zaila da supermerkatu batean lan egiteko hartzea.

Elkarrizketak **M. M:** 16 urte daramatzat Espainian. 2002. urteaz geroztik. 27 urte nituela izan nuen alabagatik etorri nintzen. Alabak sei hilabete eskas zituela etorri nintzen Espainiara. Hura mantentzeko etorri nintzen, eta ezer falta ez zekion. Bakar-bakarrik hartu nuen erabakia. Ezin nion alabari begiratu mantentzeko lanik ez neukala jakinda. Nire familiak ez zekien ezer, Espainiara emigratzeko nire asmoaz. Ezin nien amari eta anai-arrebei esan patera batera igoko nintzela Espainiara etortzeko. Ez zidaten utziko.

Bakarrik etorri nintzen, eta hona iristean arazo askorekin topo egin dut: hizkuntza, egoera legala eta beste asko, baina aurrera jarraitu dut.

Lehendabizi Bartzelonan egon nintzen. Han 12 urte egin nituen, eta gero Vitoria-Gasteizera etorri nintzen. Hemen aukera gehiago izan ditut nire seme txikiarekin. Hemen asko ikasi dut nire emakume-eskubideez; ikasi dut ezetz erantzun diezaiokedala gizonak esaten dutenari, hala iruditzen bazaigu. Horregatik mezu bat bidali nahi diet emakume guztiei aurrera jarrai dezaten. Baita etxean daudenei ere, anima daitezela gehiago irtetera eta gure eskubideengatik zergatik borrokan ari garen jakitera. Ez dute beldurrik izan behar, beren buruak balioesten ikasiko dute-eta.

F.C: Bederatzi urte daramatzat Espainian. Nire kasuan, nik inoiz ez nuen emigratzerik pentsatu, baina hartara behartuta ikusi nuen nire burua, nire ahizpari laguntzeko. Vitoria-Gasteizen bizi zen, bi ume txikiarekin, baina gaixotasun larri bat izan zuen eta laguntza behar zuen, bera eta umeak zaintzeko norbait. Beraz, Senegalen, senide artean, erabaki genuen ni etorriko nintzela zaintzera. Nik ez nuen etorri nahi, senarrari esker onartu nuen etortzea. Hura izan da nire babesik handiena eta nire eskuin eskua. Bera gelditu zen han bakarrik, normalean alderantziz gertatzen bada ere.

Nire asmoa hiru hilabeterako etortzea zen, eta gero Senegalera itzultzea, nire familiartera. Baina hilabeteak aurrera joan ahala nire

ahizparen osasunak okerrera egin zuen, eta beraz beste bi urtez geratu behar izan nuen, azkenean hil zen arte.

Dokumentu legalak banituenez, geratzea erabaki nuen ikasteko: hizkuntza ikasi, lan egin eta nire seme-alabei bizitza hobea emateko. Ikasketengatik bereziki. Nire seme-alabei nik izan ez nuena emateko geratu nintzen Espainian.

Badakit familia atzean utzi dudala, baina beti esan ohi dut bizitza hau ez dela erraza. Esperientzia polita izan da, batez ere hemengo pertsonen aldetik jaso dudana babesagatik eta laguntzagatik, eta horri esker iritsi naiz gaur nagoen lekura. Gaur egun nire seme-alabek behar dutena daukate; unibertsitatean ikasten ari dira, eta hori zen nire helburua.

Hemen nagoenetik emakume gisa ulertu dudana gauza bat izan da zorte handia dudala daukadan senarra izanda. Elkarri laguntzen diogu, elkarren beharra dugu. Baina Senegalen, gehienetan, emakumeak senarraren mende daude, hura delako lan egitera ateratzen dena. Hemen ez, hemen pertsona gisa errealizatzen ikasten duzu.

Emakume gisa ditudan eskubideei buruz gehiago jakiteko ere balio izan dit emigratzeak. Parte hartu dudana lantegi, bilera, jarduera eta hitzaldiek aukera eman didate jakiteko gizon batek eskubide berberak ditudala; errespetua eta eskubidea ez nahasteko.

F.D: Hamar urte daramatzat Espainian, nahiz eta inoiz ez izan nire herritik ateratzeko asmorik. Ikasten ari nintzen, lan bat lortu ahal izateko, baina bat batean arazo bat izan nuen nire ikasketak ordaindu ahal izateko. Sei hilabetez ikasteari utzi behar izan nion. Aldi horretan jakin nuen hitzarmen bat izenpetu zela Senegalen eta Espainiaren artean: aldi bateko lana eskaintzen zitzaizela gazteei, gero beren jaioterrira itzultzeko. Lan-kontratu horietako bat lortu nuen, eta epea amaitu zenean hemen geratzea erabaki nuen. Hasiera batean

itzultzeko asmoa nuen, eta askotan pentsatu nuen itzultzea, baina haurdun geratu nintzen, ez neukan baliabiderik eta ez nuen hizkuntza ulertzen, baina orain egoera egonkorrean nago.

Nire familiak babesa eman dit une oro. Emigratzeak ikusarazi dit senegaldar kultura eta espainiarra oso desberdinak direla elkarren artean. Han tradizioen mende zaude, baina hemen askoz askatasun handiagoa daukazu erabakitzeko. Askotan ez daukazu inori galdetu beharrik zure erabakiak hartzeko, eta hori han oso zaila da. Besteek zer esango dutenaren zain zaude beti, eta horrek eragin handia du, batzuetan nahi ez dituzun erabakiak ere hartzeraino.

Emakume gisa, emigratzeak nire kabuz moldatzen lagundu dit, inoren mende egon gabe, eta nire burua balioesten.

F.S: Ni 17 urterekin iritsi nintzen, eta beraz, ez dut ezagutu zer den dokumentaziorik gabe bizitzea.

Espainiara iristean ikasten hasi nintzen, eta azkenean, praktikei esker, lana lortu nuen.



Emigratu gisa nire bizitza ez da txarra izan, baina arrazakeria pixka bat aurkitu dut. Asko mugatzen zaitu horrek. Ate asko ixten zaizkizu. Baina era berean ikusi dut migratzaileok ere batzuetan ez garela ahalegintzen eta nahikoa dugula egunez egun bizitzen ahalegintzea. Hala ere uste dut gizonentzat errazagoa dela emakumeontzat baino.

Nire ustez bada gauza bat arabar emakumeekin batera daukaguna: biok zama bikoitz bat dugu, gehienetan etxeko lanez eta haurrak nola dauden jakiteaz arduratzen baikara.

Gizon-emakumeen balioaz jabeazten dizu emigratzeak. Nik asko eskertzen diet gurasoei Espainiara ekarri izana, Vitoria-Gasteizera bereziki, pertsona gisa eman didaten balioagatik.

Emakume guztiei esan nahi diet konfiantza izan dezatela beren buruetan, zeren eta gona bat bi eskuk lotzen duten bezala, bi eskuk lotzen dutela gerrikoa ere, senegaldar esaera batek dioen bezala. Ez gaitetzen gizonaren mende bakarrik egon.



Espero dugu argitalpen honek gizarte bera partekatzen dugun askotariko kulturetako gizon-emakumeen arteko berdintasuneranzko borrokaren bidean laguntza emateko gako esanguratsuak nabarmentzeko balioko duela. Era berean, eta zehazkiago, hemen jasotako testuak senegaldar emakumeen lagin batek bizi dituen errealitate batzuekiko hurbilketa bat dira, genero-berdintasunaren kontzeptua ulertzeko duten moduan, jatorrizko kulturaren, erlijioaren, bizipen pertsonaletan eta abarretan errotutako beren printzipioen ikuspegitik.

Lehen elkarrizketa hauei esker espero dugu solas begirunetsu eta sakona azaleratuz joango dela, sustrai sakonak oroimenean errotuta dituen Baobab ezkutuak gordetzen dituenekin sintonian, etorkizunerantz luzatuz jarraitzen duen bitartean.

